

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Thrasharen eta deatharen sorkuntza puri-purian

Bergarako pantera beltzek oso gogor egiten dute lan, ia-ia entsegu lokalean bizi izan dira azken urteotan. Horren ondorioz, musika estilo anitzeko eskaintzaz osatutako Danbaca Debagoieneko Musika Lehiaketaren bigarren edizioko irabazleak izan ziren. 90eko hamarkadako thrash gogor eta oldarkorra berpiztu eta death-metalarekin janzen dute; emaitza, zer esanik ez, oso oso indartsua da. Diskoa “azken guda” bailitzan hartu dute eta konponketaz eta garapenez jositako kantu bukazinez osatu. Hainbestekoa da sortu eta eman gura dutena. Zuzenean ere beste horrenbeste: talde trinko eta oldarkorra aurkituko duzue. Hitzetan gerren zergatia salatu eta mundu arabiarrari atxikimendua adierazten diote. Danbakak eta Gaztelupeko Hotsak-ek kaleratu dute elkarlanean diskoa.



Azken guda
Aby-Kem

GAZTELUPEKO HOTSAK

Iraupena: 43'05"
12,60 euro

ABY-KEM

«Konposatzerakoan izugarri kostatzen zaigu kantua bukatutzat ematea; asko disfrutatzen dugu»



JOSETXO ARANTZABAL / GOIENKARIA

Taldearen izena egiptoeraz da eta diskoan mundu arabiarrari keinu asko egiten dizkiozue.

Bata bestearen atzetik etorri da: lehenengo izena bururatu zitzaigun, eta nahiz eta doinu arabiarrak eta flamenkoa beti gustuko izan, hasieran ez genekien horiek lantzen. Gero guk lotu ditugu bi gauza horiek, bai hitzetan eta baita musikan ere. Hitzei dagokionez saiatu gara islatzen munduaren gaur egungo egoera, gerren zergatia... Hemen bizi garenok arabiarraren egoeraren erantzule gara.

Askok diote thrasha 90eko hamarkadako soinua dela...

Musika egiterakoan ez gara oinarritzen gaur egungo taldeetan; atzerago jotzen dugu, nahiz eta gaur egungo ukitu batzuk gehitu. Dena dela, gu bizi-bizirik gaude.

Hastapenetan ez zenuten hain musika oldarkorra egiten.

Egia da. Lehen egiten genuen thrasha bestelakoa zen. Poliki-poliki, taldeak aurrera egin ahala, emaitzari indarra, amorrua... batu dizkiogu; eta hitzak ere oso gogorak dira, salaketa egiten dugu. Errealitatea gero eta sakonago ezagutu ahala, gogortu egin gara. Hori da gorputzak eskatzen diguna.

Sinisten duzue musika lehiaketetan? Nolakoa izan da zuentzat Danbaca musika lehiaketan parte hartzea?

Danbakan parte hartzen bi alditan saiatu gara. Lehenengoan ez ginen sailkatu, baina bigarrenean irabazle izan ginen. Lehiaketak musikaren eta artearen aldekoak badira, hori bada helburua, sinisten dugu; eta Danbaca horrela ikusten dugu. Horri esker diskoa grabatu eta kaleratu dugu; baina zorte hori izan ez bagenu, guk atzerako genuke.

Disko honetan zortzi eta bederatzi minututako kantuak grabatu dituzue, garapen eta konponketa handiekin. Sinpletasuna alboratu egiten duzue?

Sinpletasuna behar bezala eginenez gero, ondo dago. Baina guk kantuak garatzen ditugun moduan odiseak bihurtzen dira. Konposatzerakoan izugarri kostatzen zaigu kantua bukatutzat ematea; asko disfrutatzen dugu.